



## Sudur gorriak, mundua iraultzeko

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Musua' diskoa aurkeztu eta 'Borobilean' ikuskizuneko azken emanaldia eskainiko dute Lasarte-Orian, bihar, larunbatean / 8-9

**Lasarte-Oriako adineko pertsonak haien omenezko asteko egitarauaz gozatzeko ari dira** / 02

**Udalak San Marko mankomunitateari egotzi dizkio hondakinen bilketan izan diren arazoak** / 04

**Axier Arteaga lau t'erdiko txapelketako final zortzirenetan arituko da bihar, larunbatean** / 11

**Eguzki Areto Futboleko taldeak, aldaketekin baina helburu handiekin, ligari ekiteko prest** / 12

**Aterpea merkataritza elkarteko Bezeroaren Hamabostaldian 1.300 euro banatuko dituzte erosketa-bonuetan** / 03

**Oscar Alegre judoka funtzio aniztasuna duten pertsonen Special Olympics jokoetan lehiatzen da** / 10

## Harremanak sendotzen

Andaluziako elkarteek Lasarte-Orian egin dituzte urteroko topaketak / 6-7



600 857 586  
www.electricidadarregui.com  
tienda.electricidadarregui.com  
(on-line denda)

Kale Nagusia 39  
LASARTE-ORIA  
Tel. 943 36 10 80  
Tel/Faxa: 943 37 25 21

## Etxeko detaile txikientzako diseinu zainduenak

LED sabai-lanpara berriak!



Sabaian sartzeko fokua, LED integratua bonbilla gabe, edozein neurritara egokitzen da

Sabaian sartzeko fokua  
7 eta 12w LED bonbillekin  
argi hotza eta epela aukeran

mantra

## LARRE JATETXEA

- Asteburuko menua 18€
- Berria! Menu begetarianoa 19,90€
- Babarrun-jana + txahal saiheshkiak 18€

Larrekoetxe bidea, 10  
LASARTE-ORIA  
943.361012 - 679.930895



Udal Musika Eskolako trikitilariak agurra dantzatu dute hasiera ekitaldian. TXINTXARRI



Euria dela eta, aterpera joan behar izan dira igel eta pote jokalaria. TXINTXARRI



Fisikoki osasuntsu daudela erakutsi dute gimnastika erakustaldian. TXINTXARRI



Emanaldi dibertigarria izan da Zirriborro klown. TXINTXARRI



Arreta handiz jarraitu dituzte lehiakideek bingoan esandako zenbakiak. TXINTXARRI

## Adineko pertsonak, osasuntsu eta gogotsuak

Adineko Pertsonen Omenezko Asteko ekintza ugari izango dira asteburu honetan; astelehenean, urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteen eguna ospatuko dute

### Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako trikitilarien doinuek eman diote hasiera Adinekoen Omenezko Asteari, astelehenean bertan, udal ordezkari eta elkarteak lagun.

Lehen egunetik izan dira ekitaldiak eta jokoak: eguraldiagatik igela eta pote lehiaketak Isla plazako etxebizitzetako karrerapeetan jokatu dituzte astelehenean. Toka lehiaketako parte hartzaileek, berriz, atertu arte itxaron behar izan dute jokatzeko hasteko. Horrek bingo lehiaketa atzeratzea ekarri du. Halere, ez da eragozpenik izan jokoan aritu diren kideentzat, umore onez bingo kantuan izan baitira. Lehiaketa amaitzearekin batera, joko horien guztien irabazleek sariak jaso dituzte.

Horrez gain, Biyak Bat elkarteak kideak osasuntsu daudela erakutsi dute asteartean daudela erakutsi dute gimnastika erakustaldian. Ariketa ugari egin dituzte, horietako batzuk pilotarekin.

Artista batek nola sortzen ditu bere lanak? Prozesu hori ezagutu dute asteazkenean kultur etxera joandako herritarrek: *Zirriborro klown* lana taularatu du Badut konpainiak. Biyak Bat elkarteak eta Añorgako Gure-Kabia abesbatzen emanaldiaz ere gozatu dute adineko herritarrek egunotan.

### Ospakizun gehiago

Baina ez dira ekitaldiak amaitu, astelehenera arte iraungo baitute ospakizunak.

Gaur, ostiralean, 11:00etan, *Ondo ibili* ibilaldi osasuntsuan parte hartuko dute elkarteak kideek. Arratsaldean, berriz, Okendo plazan gorputzari eragingo diote lerroko dantzak eskainiz. Azkenik, gauean Duo Imperial mariatxiez gozatuko dute Manuel Lekuonara hurbiltzen diren guztiek. Gonbidapena behar da ikusteko.

Bihar, larunbata, ibilaldi neurtua egingo dute; Okendo plazan hasi eta amaitzen den bideak Lasarte-Oriako kale eta parkeak gurutzatuko ditu. Biyak Bateko kideak bikoteka joango

dira, eta lehengo biek, 40.ak eta azkenak saria jasoko dute. Izan ere, 40 urte betetzen ditu elkarteak urriaren 8an. Horiez gain, hamabost sari ere zozketatuko dituzte. Arratsaldean, berriz, dantza lehiaketa izango da Biyak Bat elkarteak.

Edonola ere, Adinekoen Omenaldi Asteko egun handia igandea izango da. Hasteko, meza entzungo dute San Pedro elizan. Biyak Bat elkarteak abesbatzak lagunduko du bertan.

Amaitzean, kalejiran aterako dira Manuel Lekuonara. Bertan Biyak Bat elkarteak abesbatzak emanaldia eskainiko du, eta Amaia Gonzalez Caballero eta bere eskolakoek dantzatuko dute.

14:00ak aldera bazkari gozoa dastatuko dute Michelingo pilotalekuan, eta bazkalondoan dantza egingo dute Azabache taldearen eskutik.

Azkenik, astelehena urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteen eguna izango da. Meza, oroigarri banaketa, bazkaria eta dantza izango dute aurten elkarrekin 50 urte egin dituzten elkarteak bikoteek.



Bezeroaren Hamabostaldia kanpaina aurkeztu dute Aterpea merkataritza elkarteak kideek eta udal ordezkariak. T.VALLÉS

# Lasarte-Orian bertan kontsumitzeak saria du

Aterpea merkataritza elkarteak Bezeroaren Hamabostaldia egingo du urriaren 8tik 19ra bitartean. 98 establezimendutan erosten edo kontsumitzen dutenek 300, 100 eta 50 euroko erosketa-bonuak lortzeko aukera dute. Zozketa urriaren 19an egingo dute

## Txintxarri

Aterpea merkataritza elkarteak urriaren 8tik 19ra egingo du Bezeroen Hamabostaldia. Herriko dendari eta ostalariak udal ordezkariekin batera bildu dira ekimenaren berri emateko. Kanpaina Lasarte-Oriako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan egingo da; guztira 98 establezimenduk parte hartuko dute. Horietan erosi edo kontsumitzen duten herritarrek 300, 100, eta 50 euroko erosketa-bonuak eskuratu ahalko dituzte.

Ramon Ormazabal Aterpeako lehendakariak nabarmendu du Bezeroen Hamabostaldia urteko kanpaina garrantzitsuenetakoa dela. Aterpearen *Bizi eta erosi Lasarte-Orian* kanpainaren barruko ekimena da, eta helburua herriko bezeroak fidelizatzea da. Era berean, sektorea dinamizatu nahi dute, herritarrek beste herri batzuetan, saltoki handietan edo Internet bidez ahalik eta gutxien eros

dezaten. "Merkataritza lokalik gabe herriek bizitzarik ez dute", adierazi du Ormazabalek.

Modu horretan, Bezeroen Hamabostaldian beren erosketak edo kontsumoak herriko 98 establezimendutan egiten dituzten herritarrek zozketa batean parte hartzeko txartelak jasoko dituzte.

## Zozketa, Okendo plazan

Zozketan 1.300 euro banatuko dituzte erosketa-bonuen bidez. "300 euroko hiru bonu, 100 euroko bi bonu eta 50 euroko lau bonu", azaldu du Ormazabalek.

Zozketa ekitaldi publikoa izango da. Hitzordua: urriaren 19an, 20:30ean, Okendo plazan. Aterpeak herritarrek gonbidatu ditu Bezeroaren Hamabostaldian herriko komertzioetan kontsumitzera, eta zozketa egunean Okendo plazara hurbiltzera.

Horrez gain, hamabostaldi horretan parte hartuko duten

merkatarien, ostalarien eta zerbitzu pertsonalen ahalegina eskertu du Aterpeako lehendakariak.

Kanpainak 4.275 euroko kostua du, eta Lasarte-Oriako Udalak 1.221 euroekin finantzatu du.

## Udala eta Aterpea

Jesus Zaballos alkateak Aterpea zoriendu du urtero aurrera eramaten dituen jarduerengatik. Bide batez, nabarmendu du udalaren eta Aterpearen arteko hitzarmenari esker sortzen diren jarduerak erreferente direla Gipuzkoa osoan. Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea dinamizatzeko helburuarekin orain arte eginiko bidea txalotu du.

## BEZEROAK FIDELIZATU ETA HERRIKO SEKTOREA DINAMIZATU NAHI DUTE KANPAINAREKIN



NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

## Egokitzapena

Eskolan, egokitzapen garaian semearen alboan egotea egokitu zait azken aste hauetan. *Egokitu* baino, *alboan egotea* aukeratu dut. *Aukeratu* hitza beharrean, agian eskolak horretara *bideratu* nauela esan dezaket. *Bideraturen* orde, *gomentatu*. *Elkarbanatu*, *lagundu*, *kide izan*, edota *babesa eman* bezalako hitzekin ere egokitzapen prozesu hau apaindu genezake.

Haur bakoitzak modu desberdinean bizi du prozesu hau. Familia bakoitzak ere jarrera anitzak agertzen ditugu dinamika hauen aurrean. Ez da erraza izaten hezkuntza sistema arautuan haurren derrigorrezko txertatze prozesu honetan, parte hartzen duten hiru faktoreen artean adostasuna izatea.

Batetik, haurra dago. Haurrak badaki zerbait berria badatorrela. Oporretatik jada bere inguru guztiak etengabe errepikatuko dio aste gutxitan emango den aldaketaz. Oraindik ez da gai denboraren eta espazioaren nozioak kontrolatzeko, eta, beraz, zaila du beretzat ezezaguna den etorkizuneko kokagune berri hori bere mundu abstraktuan zehaztea.

Bestetik, gurasoak gaude. Etxeko dinamiketatik at, haur eskolako goxotasunetik kanpo, kide berriekin, espazio ezezagunetan eta irakasle arrotzek osaturiko mundu paraleloan aurkituko gara bat-batean. Badakigu gainera, *berria* hitzarekin lotzen dugun orok, sortzen duen ezinbesteko urduritasuna.

Azkenik, irakaslea dago. Bera da egokitzapen prozesu honen ardatzetako bat. Bera da profesionala. Badaki guraso guztien kezka, zalantza eta kapritxoaren artean tinko mantendu behar duela. Aldi berean, goxo izan eta haurrekin interakzioa bultzatzen egon behar du pixkanaka, euren konfiantza irabazteko, eta, bide batez, gurasoen aurrean bere jakintzaren eta ekintzen berri uzteko moduren batean.

Hiruki honen barruko barne mugimenduak hasten direnean, ordea, guztia errazten hasten da. Haurrak lehen egunetik naturaltasunez barneratzen du prozesua. Batzuetan negar eginez, beste batzuetan pozik jolasean, eta tarteka indiferentzia puntu batekin; baina natural. Gurasoek, ordea, egokitzapenaren bide honetan zalantza, kezka eta urduritasunaren zurrunbiloan jarraitzen dugu, askotan gure sentimenduak ezkutatu, besteen aurrean dena ongi edo gaizki dagoenaren itxura emanaz, eta neurri batean, konturatuz egokitzapena ez dela gure seme alabentzako ematen den prozesu soila, helduoi haurrarentzat banatzeko, sistemak jartzen digun frogua moduan ere har genezakeela. Hau naturala al da, ordea?



Landaberri ikastola. LASARTE-ORIAKO UDALA

## Isurbidea egingo dute Landaberri ikastolako pasarelan, Zubietan

Lasarte-Oriako Udalak Cubiertas Pagola enpresari adjudikatu dio Landaberri ikastolako pasarelan

egingo den lana. Enpresak polikarbonatozko pasarela estalkia handitu eta isurbide moduan errematatuko du. Lanak egin ahal izateko 3.044 euroko aurrekontua aurkeztu du enpresak.



Urdepilleta Zerbitzu Publikoen zinegotzia, Zaballos alkatea, eta Valdivia zinegotzi eta mankomunitateko ordezkaria. TXINTXARRI

## Zerbitzua ez betetzea egotzi diote San Markori

Udalak mankomunitateari leporatu dio kontratua "behar bezala" ez betetzea. Uztailetik hondakin guztien bilketaren ardura du San Markok, baina gabeziak salatu ditu alkateak. Herritar batzuen "heziketa falta" ere kritikatu du, altzariak behar ez denean uzteagatik

### Adrian Garcia

Hondakinen bilketan azken hilabeteetan Lasarte-Orian egon diren arazoak azaldu ditu prentsaurrekoan Jesus Zaballos alkateak, eta errudunak zeintzuk diren seinatu: San Marko Mankomunitatea. Izan ere, uztailetik aurrera mankomunitateak hartu du errefuxaren bilketaren ardura. Lehendik gaikako bilketa ere egiten zuten. Bada, alkateak salatu du udatik aurrera bilketa ez dela "behar bezala" egin. Hainbat bilera izan dituzte San Markoko ordezkariekin, baina arazoa konpondu ez denez, Agustin Valdivia zinegotziak eta udalak mankomunitatean duen ordezkarietako batek kexa formal jarri du.

Horrez gainera, "beste faktoreei" ere egotzi diete udalerriko hainbat puntutan zaborrontziak gainezka egotea. "Heziketa arazoa dago". Izan ere, alkatearen esanetan, batzuek egokitzen ez denean uzten dituzte altzariak eta tamaina handiko hondakinak

zaborrontzian. Berez, asteazken arratsaldean utzi behar dira, ostegun goizean jasotzen dituztelako. Eskualdeko puntu garbietan uzteko aukera ere badago. "Ez dugu zigortzen hasi nahi, baina jendeak araua errespetatzeko ezinbestekoa bada, isunak jarri beharko ditugu", ohartarazi du Zaballosek.

### "Beste faktoreak"

Azkenik, etxegabe batzuen jarrera ere kritikatu du alkateak. "Kolektibo batek, haien egoera gordina dela eta, zaborretan arakutzen du erabilgarria zaion zerbaiten bila. Arazoa da zabor poltsak hartu, ireki, eta behar ez dutena kanpoan botata uzten dutela".

### HAINBAT BILERA EGITEN ARI DIRA UDAL ORDEZKARIAK SAN MARKOREKIN, EGOERA BIDERATZEKO

Edonola ere, arazo nagusia da San Markok eskaintzen duen zerbitzuaren gabezia, udalaren arabera. "Hiru hilabete daramatzagu haiekin, eta ez gaude batere gustora zerbitzuarekin". Valdiviak irailaren 28an izan zuen batzarra mankomunitatean, eta bertan plazaratu zituen udalaren kexak. Argazkiak ere erakutsi ditu. Horiek erakusten dute abuztuaren Oria etorbideko egoera. "Egunetik egunera zabor gehiago zegoen, eta nahiz eta deitu genien jaso zezaten, hilabete osoan ez ziren pasa".

### San Markorekin bilerak

Udalak aurreikusi du zergetan hobariak eskaintzea organikoa birziklatzeagatik, baina horretarako nahi du zaborrontzien egoera hobetu. Eskaeren artean, bilketaren maiztasuna handitzeko eskatu dio mankomunitateari. "San Markon egon nahi dugu, baina zerbitzua ez badu betetzen, ez luke zentzurik jarraitzeak".



TXINTXARRI

## Presoen aldeko deia, Donostian

Euskal presoen alde manifestazioa egingo dute Donostian urriaren 20an, Antiguako tunelean hasita. Salbuespen neurriekin amaitzeko oihua izango da. Lasarte-Oriako hainbat herritarrek deia egin dute Orain presoak ekimenak antolatutako protesta horretan parte hartzera, "bakean eta adiskidetzan bizitzeko" eskatzeko. Hauek dira, norbanako bezala, konpontzeko eskatu dituzten lau puntuak: urruntzea; larri gaixo dauden presoak; bi estatuko zigorren batuketaren aplikazioa; eta lehen graduaren aldaketa.



TXINTXARRI

## Nagusilanen berri ematen

Nagusilan elkarteak egiten duen lanaren berri emateko kanpaina egiten ari da. Lehengo asteazkeneko azokan izan ziren, herritarrei elkarte eta bere lanaren nondik norakoak azaltzen. Beste erremediorik ez dutelako bakarrik geratzen diren adineko pertsonak laguntzen dituzte, horien ahalduntzea bultzatzeko. Horrez gain, zahartze aktibo solidarioaren alde ere egiten dute, eta gizarte eragile modura duten balioa aldarrikatzen dute.

## Lan baldintzengatik protestan ari dira Atsopakarko langileak

Atsopakarko langileek greba egin zuten irailaren 28an, ostiralean. Gutxiengo zerbitzuak ezarri eta Donostiako Aldundira joan ziren lan baldintzengatik protesta egitera. Langileek soldata igoera, atsedena ordaindua eta ratio hobeak eskatzen dituzte, besteak beste. Ia bi urte eman dituzte negoziatzen, baina ez dute emaitzarik lortu. Urrian ere greba egitea aurreikusten dute, hilaren 24tik 26ra bitartean.



Afixak egoitzan. ATSOBARKARKO LANGILE BATZORDEA

# Bidaiari gehiago nahi ditu Euskaraldiaren trenak

Ahobizi eta belarriprest-en bila jarraitzen du herriko hamaikakoak. Trenean ibili dira asteburuan, Lasarte-Oriatik Amara arteko bidean. Hegazkin laguntzailez mozorroto, eta Euskaraldia zertan den azaldu diete bidaiariei. Azaroaren 23an hasiko da ekimena

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Euskaraldiaren trena Euskal Herri osoko 400 herri eta hiritara iritsi da honezkero, baina bagoietan kabitzen dira bidaiari gehiago oraindik. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohiturak astinduko dituen egitasmo horretarako ahobiziak eta belarriprestak topatze aldera, topoan ibili zen hamaikakoa pasa den ostiralean.

Lasarte-Oria eta Amara arteko bidea *Euskaraldiaren bidaiaria* izan zen. Hegazkin laguntzailez jantzita, Euskaraldia zertan den azaldu zieten bidaiariei; musika eta umore ona erabili zituzten horretarako. Minutu eta erdi irauten zuten azalpenek. Gero, herritarren ondoan eseri, eta solasean aritu ondoren, izen-emate orriak banatu zizkieten.

Ttakunenean entseatu zuten ostiral arratsaldean. 17:30ak aldera abiatu ziren tren geltokira, eta 18:00etatik 20:00etara bidaiatu zuten, etenik gabe. Bukatutakoan, Okendo plazatik pasa ziren.



Hamaikakoak eta erakundeetako ordezkariak familia argazkia atera zuten. TXINTXARRI

Treanean bueltaka hasi baino lehen, familia argazkia atera zuen hamaikakoak, ekintza berritzaile horretan parte hartu duten erakundeekin batera.

## Hitzarmena Euskotrenekin

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordeko lehendakari Jon Antxordokik nabarmendu du "originala eta erakargarria" izan dela *Topoan topatu* ekimena.

"Ezinbestekoa izan da Euskotrenen laguntza". Ttakuneko lehendakari Tomas Arrizabalagak Euskaraldiaren sorrera gogoratu du: "Duela bi urte irten zen trena Lasarte-Oriatik, Euskararen 9. Maratoian hizkuntza ohiturak aldatzeko egin genuen ariketa sozialarekin". Euskotrenen izenean Ixone Alkorta inspektorea egon zen; hamaikakoarekin bidaiaria bat egitera animatu zen.

## Urriko kultura-agenda, ekitaldiz eta ikuskizunez beteta

Musika, antzerkia, dantza, ipuin kontalariak, zinea, jaiak... gustu guztientzako ekintzak izango dira

### Txintxarri

Urriko asteburuetan ez dago aitzakiarik etxean geratzeko: ekitaldiz eta ikuskizunez beteta dator kultura-agenda.

Adineko Pertsonen Omenaldi Asteko ekintzak dira nagusi lehen egunetan, baita Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Borobilean* ikuskizunaren azken emanaldia ere.

Hilabete honetan zineak tarte handia izango du. Zubian izan ezik, astebururo izango da Manuel Lekuonan saioa.

Okendo Zinema taldearen eskutik, *Lucky* filma eta *Carmen y Lola* eskainiko dituzte. Haurren ataleko saioetan, esate baterako, *Luis eta estralurtarrak* ikusi ahalko da urriaren 21ean. Helduek berriz, *Alpha*, *Yukatan* eta *The book club* filmez gozatuko dute.

Operari ere tartea egingo dio kultura sailak, *La traviata* ikuskizunarekin, eta urriaren 26an, *Cuerda* antzerkia eskainiko du Tanntaka antzerki taldeak.

Sasoeta Sasoian elkarteak auzoko jaiak antolatu ditu aurten ere.

Urriaren 12tik 14ra bitartean ospatuko ditu. Egun horietan festagiroan ibiliko dira Semblante Andaluz elkarteak ere: aste kulturala ospatuko dute, Okendo plazan.

Erketz EDT dantza taldeak ere badu zer ospatua: 50 urte bete ditu aurten. Urriaren 20an emanaldia egingo dute Okendon.

### Musika Topaketak Brigidetan

Urriaren 26an hasiko dira Danok Kidek antolatutako Musika Topaketak. Maladanza taldeak eskainiko du emanaldia, 19:30ean, Brigitarren komentuan.

Ipuin kontalarien denboraldia egun bat lehenago hasiko da, 25ean. Pello Añorgak 4 eta 5 urteko umeentzako saioa prestatu du. Hilaren 30ean Kontu Kantoi ariko da Udala Liburutegian.

## 2019ko udal hauteskundeak prestatzen hasi dira alderdiak

EH Bilduk eta Podemosek batzar irekiak egin dituzte egun hauetan; EAJk erabaki du dagoeneko hautagaia

### Txintxarri

Datorren urteko maiatzeko udal hauteskundeak gero eta gertuago daude, eta alderdi politikoak hasi dira horiek prestatzen. EH Bilduk Batzar Irekia egin zuen herenegun, Villa Mirentxun. Hautagai zerrendak eratzeko prozesuari buruz hitz egin zuten, eta hautagaien inguruko irizpideak zehaztu.

Podemoseko kideak kultur etxean batzartu ziren pasa den astean. 2019ko hauteskundeetan hautagaitza talde bat sortzeari buruz aritu ziren, eta David

Aresek zinegotzi baten lana nolakoa den azaldu zuen. 2015ean aurkeztu ziren aurrenekoz, eta hiru zinegotzi lortu zituzten. "Aukera baliatu behar dugu hauteskundeak irabazteko; gai askotan erabakigarriak izan gara legealdi honetan".

### Hautagaiak, erabakita

EAJk erabakita dauka 2019rako alkategaia: Jon Antxordoki izango da zerrendaburua. Bestalde, gaur egungo alkate Jesus Zaballosek (PSE) berriro aurkezteko asmoa du.

## Oriaren historia, 10 karteletan

Hamar argazki historiko aukeratu ditu udalak, Oriako auzotarren bizimodua eta historia erakusteko. 9.196 euro inbertitu ditu horretarako. Sorgin dantzaren desfilea, automobil zirkuituko pare bat irudi, Bruneteko zenbait langile 1870. urtean, Brunetarren jauregia eta Baratzalde etxearen argazki bat hautatu dituzte, besteak beste.

*Guztion Lasarte-Oria* programaren parte da egitasmoa: herriko hormak eta guneak berritzea du helburu.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Zonbiak itzuliko dira bihar herrira

Gaueko iluntasunaren jaunak zonbiez beteko ditu herriko kaleak bihar. Ezagutzen dute lasarteoriarrek *Survival Zombie* jokoak; 1.100 pertsonak parte hartu zuten iaz. Berrikuntzak dakartza bigarren edizioak: sei ordu iraungo ditu, eta Loidibarrenen jarriko dute informazio eta makillaje gunea.

# Jaioterria, inoiz baino gertuago

## FARAE topaketak Michelinen

Euskal Herri osotik etorritako andaluziarrak Michelingo kirol gunean elkartu ziren asteburuan; Semblante Andaluzek 29. FARAE topaketak antolatu zituen. Musika, emanaldiak, dantza, janari goxoa, rebujittoa... Urtean zehar tenis pistak izaten direnak Andaluzia txiki bat bilakatu ziren larunbatean, duela lau urte gertatu bezala.

Mezarekin hasi zuten eguna: Ramon Uribe-Etxeberria apaiz beteranoak gidatu zuen elizkizuna, eta Semblante Rociero koruak jarri musika. Michelinetik kanpo egin zuten ekintza bakarra izan zen. Goiz eta arratsalde, hainbat kontzertuz gozatu zuten ikus-entzuleek. Malagatik etorritako SonSonySal taldearena izan zen egitarauko ikuskizun nagusia. Tenis pistetan bertan bazkaldu zuten: lauhun pertsonak dastatu zuten Portugaleteko Sukalde catering enpresak prestatutako menu gozoa. Dantzatzu pasa zuten gero arratsalde osoa.



Semblante Rociero koruak ireki zuen larunbateko emanaldi sorta. TXINTXARRI



Lauhun pertsonak bapo bazkaldu zuten. Sukalde catering enpresak prestatu zuen menua. TXINTXARRI



Duela lau urte antolatu zituen Semblantek FARAE topaketak. Aurten ez zegokien beraiei lan hori har



Bazkalostean, arratsaldeko kontzertuak hasi baino lehen, kantuan eta dantzan aritu ziren ia ordubet



teza, baina mesedea eskatu diete. Udalaren laguntzarekin, onartu egin dute. TXINTXARRI



Malagatik etorritako SonSonySal taldearena izan zen topaketetako emanaldi nagusia. TXINTXARRI



ez. Ez da digestioa egiteko modu batere txarra. Ilundu arte jarraitu zuten. TXINTXARRI



Durangoko El Sur taldeko kideetako bat, dena ematen. Arratsaldeko bigarren ikuskizuna izan zen eurena. TXINTXARRI

# "Lasarte-Orian gertatutakoa itsasargi bat da mundu osorako"

**JOXE MARI AGIRRETXE** PORROTX

Lasarte-Oria euskalduntzeko lanean hasi zen Agirretxe orain 35 urte. Lortutakoari buruz hitz egin du TXINTXARRI-rekin. Bihar aurkeztuko du 'Musua', herrian bertan

**Adrian Garcia**

Hamaika proiektu eta saltsatan murgilduta bizi da Joxe Mari Agirretxe (Lasarte-Oria, 1964), buruari etengabe eragiten. Ekintzaile nekazaria, orain dela 35 urte hasi zen, beste batzuekin batera, herria euskalduntzeko lanetan. Olentzeroz jantzita hasieran, pailazoz gero, haren jardunak aspaldi igaro zituen Lasarte-Oriako mugak, Euskal Herriko gaztetxoei gizarte gaiak balore hezitzaileetan transmititzeko. *Musua* disko berriaren aurkezpena izan du buruan egunotan; herrian bertan aurkeztuko dute, bihar, larunbatean, Jalgi tabernan. Arratsaldean, berriz, *Borobilean*-en azken ikuskizuna emango dute, Jalguneko kideekin batera. "Lekukoa pasako dugu". Agenda beteta eta eskuko telefonoa joka eduki arren, tartetxo bat atera du TXINTXARRI-rekin hitz egiteko. **Lasarte-Orian disko aurkezpena eta aurrekoaren azken ikuskizuna. Berezia izango da zuentzat herrian egitea trantsizio hori, ezta?**

Oso berezia, gainera Jalguneko gure lagun kuttunekin egingo dugu. Beste askotan ere lagundu digute, asko ikasten dugu haiengandik. *Borobilean* joan zaigu. Munduan bidegabekeria asko daude, baina Amona Josefinak dioen bezala, mundua borobil txikiak eginez konpondu dezakegu. Borobilean eseri eta elkarri begietara begiratu,

sentimendu eta emozio horiek guztiak partekatu behar ditugu, ezinak eta minak bideratzeko. Poliki-poliki arazo potoloagoak konpontzera ausartu gaitzke, eta noizbait iritsiko gara mundua konpontzera.

**Borobilean badoa. Zer dator orain? Nolakoa da *Musua*?**

Muxu bero bat da, horregatik da mu-sua. *Musua* eman nahi diogu gure kulturari eta naturari, elkarren arteko harremana oso gertukoa dutelako. Kultura sortzen da bizi duguna behatuz, gozatuz eta amestuz. Bizi dugun hori natura ere bada; pega-pega bizi gara, elkarrekin. Harreman horretan sortu ditu gizakiak kantuak, dantzak, errituak, eraldatzeko dauden tradizioak... **Naturarekin lotutako tradizio asko daude Euskal Herrian.**

*Musua* ematen diogu lurrari Santa Agedan, oles eginez makilarekin kolpatuz neguko hotzetik esnatu dadin; *Musua* ematen diogu inauterietan gure joaldunei, haien joaleak astindu ditzaten izpiritu txarrak eta zomorroak uxatzeko; baita Miel Otxini, txantxoei eta Ziripoti ere; *Musua* ematen diogu udako solstizioari sanjoanetan, suaren inguruan dantza egiteko; *Musua* Animen gauari, Olentzero eta Mari Domingiri. Azken finean, *Musua* kulturari eta naturari. **Laguntzaile asko izan al dituzue diskoan?**

Batetik, Leire Bilbao poetak egin ditu hitzak. Guk azaldu genion zer nahi genuen, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Maite Mutuberria gazteak egin ditu ilustrazioak, eta Xabier Zabalak musika. Disko honetan du oinarria datorren urteko ikuskizunak; prestatzen ari gara momentu honetan.

**Bi disko datoz *Musua*-ren liburu diskoan.**

*Familia milakolore*, gure abestien bilduma bat, oparitzen dugu diskoan. Familia ardatz hartuta hamabi gai hartu ditugu, eta Miren Amurizak espresuki eginiko zortzi ipuintxo txertatu ditugu abestien artean. Kasu honetan, Txakur Gorria taldeak egin ditu ilustrazioak; tartean dago Ane Labaka herritarra.

**Hain zuzen, naturarekiko harreman hori bat dator gaurkotasunarekin; herri ondoan ari dira eraikitzen proiektu arriskutsu asko.**

Mundua itsusi dago. Gerrak, okupazioak eta hesiak daude nonahi. Baina urrutira joan beharrik ez dago: Zubietan erraustegia, kartzela eta armadaren kuartela eraiki nahi digute. Beste okupazio bat da hori. Handiek oso erraza dute Zubietan bezalako herrirka bat zanpatzea, haien eta inguruko iritziak kontutan hartu gabe. Gainera, lurrari eta naturari min egiten diote proiektu horiek.

**Zuek pailazok askotan landu duzue birziklapenaren gaia.**

Pentsatzen dugu beste jarrera batekin landu beharko genukeela hondakinen kudeaketa. Gero eta hondakin gutxiago sortu, gero eta hobeto. Sortzen direnak berrerabili eta birziklatu behar dira, zero zabor politikara hurbiltzeko. Arduratsu jokatu behar dugu horretan, haurrengandik hasita, baina baita gazte eta helduek ere. Txikitatik hezi eta hazi behar dugu arduran, inguruarekiko errespetuan. Azken finean, natura maitatzea geure burua maitatzea da. *Musua*-k hori esan nahi du: maitasun keinu bat da gure naturarekiko, eta hausnartzeko dei bat, ingurua zaindu dezagun.

**Ez zen kasualitatea izango *Borobilean*-en DVDa Zubietako Eskola Txikian grabatzea. Zer moduz joan zen?**

Oso ondo. Grabatu bakarrik ez, umeekin lanketa ere egin dugu. Abestiak, gidoiak, koreografiak eta grabaketak nola egiten diren ikasi dute, irakasle eta adituekin batera. Lau hitzaldi eta solasaldi izan genituen prozesu guztia ezagutu zezaten, eta ondoren egin genituen grabaketak.

**Zergatik eskola txikian?**

Euskal Herria eta gure hizkuntza ere txikiak dira. Agian horregatik, errazago enpatizatzen dugu geu bezala txikiak direnekin, eta korrontearen aurka izokinen moduan borroka egiten dutenekin. Munduaren beste ikuspegi bat dugu txikia garenok, hizkuntza eta kultura txikia dugunok. Eskola txikia izanik, eskaintzen du beste goxotasun bat, dena masifikatuta dagoen garaioan.

**Orain hiru hamarkada hasi zineten lanean. Hasieran Lasarte-Oria euskalduntzen. Zein egoeran zegoen orduan herria?**

Orain dela 35 urte Lasarte-Orian ez zegoen udalik ere, behin-behinekoa zegoen. Lasarte-Oria Berreuskaldundu Dezagun euskara talde bat bazegoen; bertara hurbildu ginen gu [Agustin Mujika *Takolo*-rekin

**"MUSUA DISKOA KEINU BAT DA, HAUSNARTZEKO DEI BAT, GURE NATURA ZAINDU DEZAGUN"**

batera], herrian dena egiteko zegoelako. Garai hartan haurren %80k ez zuen eskolan euskaraz ikasten, eta kalean ere ez zen hitz egiten. Zenbat euskaldun ginen ere ez genekien.

**Pailazo bihurtu aurretik Olentzero zineten, ezta?**

Olentzero antolatzen hasi ginen orduan. Ordura arte ikastolarena bakarrik zen. Helburua zen ikastetxe guztietara zabaltzea, eskola orduetan ume guztiak joan zitezten. Lortu zen hori. Eskoletan ezagutza bermatuta zegoenean, orduan kalera atera genuen. Eta orain 24ean arratsaldean egiten da, herri guztiarentzat. Baina prozesu luzea izan zen hori.

**Euskararen lehenengo maratoia ere garai horretakoa da.**

Euskara eta alaitasuna batu nahian jaio zen pailazo taldea; ikasgaitik harago, euskara zerbait alaia izan zedin umeentzat. Ikus zezaten kalean ere bazuela presentzia. 1986an izan zen lehen euskararen maratoia. Bilera informal eta emankor batean, sagardo eta txistorra tartean, Takolok esan zuen Euskararen Maratoia 40 Ordu Euskaraz egin behar genuela, jakiteko zenbat euskaldun geunden Lasarte-Orian. Oholtzara igotzen zen bakoitzari itsasgarri bat jarri, eta 1.200 pasatxo zenbatu genituen.

**Atzera begiratuta, lorpen handiak egin dira Lasarte-Orian.**

Garai hartan eskualdeko ahate itsusia ginen. Baina beharra dagoenean lan egiten da. Jabetu ginen euskarak aurrera egiteko eremuak konkistatu behar zituela. Gaur egun euskara zerbitzu indartsu bat dugu udalean; ikastetxe guztiak D ereduan daude; AEK eta udal euskaltegia helduak ari dira euskalduntzen; Mintzalagun kuadrilla ederra dugu; 25 urte bete berri dituen herri aldizkariak astero argitaratzen du; Bertso Eskola; Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola; Xumela abesbatza; Dinbi Banda batukada; Literatur Txokoa; Ipar Martxa; Plaza Dantza dago astero; Ttakunek ume eta gazteentzat programa mordoa ditu; Kuadrillategi, Gazte Kluba, Eskola Kirola... Eraldaketa indartsua jasan du herriak. Halere, sekula ez diogu utzi hausnartzeari; duela bi urteko maratoian ahobizi eta belarriprest martxan jarri ziren,





Porrotx, Borobilean DVDaren aurkezpenerako prestatzen, Zubietako Eskola Txikian. TXINTXARRI



TXINTXARRI

orain Euskal Herri osoan zabaldu dena.

**TXINTXARRI zuen garaikoa ere bada. 25 urte bete ditu aste honetan.**

Izugarria da etxe guztietan TXINTXARRI bezalako bitarteko bat jasotzea, gure herriaren berri euskaraz izatea.

**Eredugarria izan al daiteke Lasarte-Oria beste hizkuntza gutxituentzat?**

Lasarte-Orian egin dena, eta oro har, Euskal Herrian gertatzen ari dena, mundu mailan itsasargi bat da gu bezala txikiak diren hizkuntza eta kulturentzat. Pailazook dugun poza da bidaide izan garela itsasontzi eder honetan. Herri honetan euskalgintzak eta pailazook bide berbera eraman dugu; beti bultzatu dugu alaitasuna, euskara

eta baloreak. Hezten ari gara gure herria eta gure ingurua. **Herrigintza eta euskalgintza errotuta daude Lasarte-Orian. Euskara elkarte batek babesa ematea garrantzitsua da haientzat, ezta?**

Bai, baina arazo bat dago. Garrantzitsuak diren tresnak eta dinamikak ohikotzat jotzen ditugu, eta iruditzen zaigu horiek beti egongo direla hor, normala dela haien jarduna. Guk Euskal Herria goitik behera zeharkatzen

**"GARRANTZITSUAK DIREN TRESNAK OHIKOTZAT JOTZEN DIRA; BALORATU EGIN BEHAR DA DUGUNA"**

dugu urtero, eta distantzia pixka bat hartuta, Lasarte-Oriako kultur elkarte eta herrigintza itsasargiak dira Euskal Herri osoarentzat. Gauza horiek zaindu behar dira; herritarren partetik, baina baita erakunde publikoen partetik ere. Txokoekin eta jaietan gertatu dena ez zait gustatu. Ez dakit pailazooi dagokigun hori esatea, baina oso itsusia da herrian dagoena ez baloratzea.

**Euskara atsegingarri egitea izan da beti zuen filosofia. Beste baloreak transmititzeko ere umorea erabiltzen duzue. Hori al da pailazoen arrakastaren giltza?**

Gu esketx klasikoak egiten hasi ginen: arrautzak puskatzen genituen. Berehala konturatu

ginen erreferenteak ginela, umeek ere arrautzak puskatzen zituztela etxean. Pentsatu genuen sudur gorriak izan zitezkeela baloreak transmititzeko tresna egokiak. Kultura aniztasuna, *Familia milakore*, *Bizipoza*, *Ttipi-ttapa korrika*, umeen esplotazioa, baserria, amalurra... denetario gaiak lantzen ditugu urtero. Sudur gorriak eta umorea mundua interpretatu eta eraldatzeko tresnak dira. Margotu dezakegu etorkizun amestu bat, modu alai batean. Arrakastatzat jo badaiteke gure ibilbidea, giltzarria da alaitasuna. Goxotasuna partekatzen dugu; muxuak, besarkadak...

**Gaixo dauden haurrekin lan handia egiten duzue. Valentzian egon zara egunotan, Julen bisitatzen.**

Bizkaitarra da eta 21 urte ditu. Bihotz arazoekin jaio zen. Txikitxikitatik izan genuen harremana. Bi urte zituela konplikazio bat izan zuen, eta koman sartu aurretik "Takolo, Pirritx eta Porrotx" hitzak ahoskatu zituen. Izebak lortu zuen gure telefona, eta Bizkaitarra joan ginen egun batean, Pirritxek eta Porrotxek oholtza prestatu bitartean, Takolo ospitalera joan, gelan sartu eta

**"TXISTE, BARRE ETA ALGARAZ HARAGO, UMOREA BIZITZAN EKITEKO MODU BAT DA"**

gitarrarekin hitz egiten hasi zen. Bada, umea esnatu egin zen. Orain transplante baten zain dago, Valentzian. Bisitan joan ginen, elkarri indarra emateko.

**Zuek haiei bai, baina ume horiek ere indar asko transmitituko dizuete, ezta?**

Errealitate gordin horiek bizi dituzten haur eta senideak ezagututa, umorearen begirada aldatu zaigu. Takolok Julen esnatu izana erakusten du sudur gorriak duen indarra. Txiste, barre, algara, esketx edo parranda bakarrik ez. Umorea ere bada bizitzan ekiteko modu bat. Irribarrez eta baikor jardutea ezinbestekoa da beste mundu bat lortzeko. Guretzat Aspanogi eta beste elkarteak ezagutzea aberasgarria izan da. Hain zuzen, haien 20. urteurrena ospatuko dugu urrian. Oso berezia izango da.

**Lasarte-Orian ere egongo dira horrelako adibideak.**

Bai, ez da urrutira joan behar. Jalgune ezagutzen dut barrutik, elkarte partaideak eta begiraleak. Eta taldearen aniztasuna itzela da. Sinestezina da egunerokotasunean erakusten duten errespetua, elkartasuna, maitasuna eta elkar zaintzeko ardura. Gizartearentzat eredugarriak dira. Jalgunek beste begirada bat eman digu, pertsona horien indarra, ilusioa eta eskuzabaltasuna erakutsi dizkigu. Horrek bete egin gaitu, eta gure nortasuna ere aldatu du.

**Hiru hamarkadaz aritu zara gaztetxoekin batetik bestera. Orain asko ikusten dira eskuko telefonoari itsatsita, elkarren artean batera hitz egin gabe. Nola aldatu dira haurrak pailazogintzan jardun duen urte horietan guztietan?**

Haurrak beti dira irudimentsuak, jolastiak, irekiak... Guretzat eredu bat dira. Haiek ez dira aldatu. Mundua aldatu da, helduok aldatu gara. Gu txikiak ginenean Lasarte-Orian ez zegoen autobiarik, eta auto gutxi pasatzen ziren. Telebistarik ere ez zegoen. Kanean jolasten genuen, irudimena erabiltzen. Orain saltoki handiez inguratuta gaude. Aisiarako gune bihurtu dira, gainera. Telezaborra oso handia, sare sozialetan mugarik ez dago. Horregatik, orduan ez bezala, orain behartuta gaude alternatibak sortzera, euskaratik, herrigintzatik eta baloreetan oinarrituta.

# Oscar Alegre, Special Olympics jokoez gozatzen

Hainbat diziplinatako 1.500 kirolari elkartu dira Andorran. Lasarte-Oriakoa da horietako bat: Oscar Alegre du izena, eta judoa egiten du LOKE taldean. Entrenatzaile Gorka Aristegik eta gurasoekin batera, "kirol esperientzia polita" biziko du asteburuan

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Ikurrina presente egongo da Special Olympics jokoen gaurko desfilean. Oscar Alegre lasarteoriatarra da Euskal Herriko ordezkari bakarra. Judoa egiten du LOKE taldean. Haren gurasoek eta entrenatzaile Gorka Aristegik ere egin dituzte maletak; atzo iritsi ziren Andorrara. "Kirol esperientzia polita" biziko du Alegrek egunotan, Aristegik nabarmendu duenez.

Mundu osotik etorritako 1.500 kirolarik parte hartuko dute aniztasun mentala duten pertsonen kirol topaketa erraldoi horretan. Inaugurazio desfilea gaur egingo dute; txapelketa moduko bat jokatu dute bihar, eta dominak jasoko dituzte gero; bukatzeko, igandean, itxiera-gala. Seu d'Urgellek (Lleida) eta Andorra La Vella (Andorra) antolatuta dituzte aurtengo jokoak.

"Oso-oso pozik gaude denak. Aukera bikaina da kirolaren festa honetan parte hartzea;



Duela zortzi urte hasi zen Oscar judoa egiten. LOKE KIROL ELKARTEA

esperientzia oso polita izango da Oscarrentzat, eta berarekin goazenontzat ere bai", dio Aristegik. Aukera ez da egun batetik bestera sortu: duela hiru urte judo inklusiboa lantzen hasi zen LOKE.

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa harremanetan jarri zen Aristegirekin, eta Special Olympics jokotan parte hartzeko aukera eskaini zion. Saskibaloitalde bat eta zenbait judoka ziren joatekoak. Saskibaloioek ezin

izan zuten parte hartu azkenean, eta judoka gehiagorentzako tokia zegoen. Aristegik erabaki zuen ezin zutela denbora galdu, eta Andorrara joateko aukeraren berri eman zien Oscar Alegre gurasoei. Atzotik daude han. "Eskerrak eman behar dizkiot Euskadiko Judo Federazioari; haien babesik gabe ez ginatke hemen egongo". Modu askotara lagundu diete: materiala eman diete, txandal eta guzti. Gaurko desfilean dotore joango dira.

## Zortzi urtez tatamietan

20 urte ditu Oscarrek. Ia erdiak eman ditu Maialen Chourraut kiroldegiko tatamian: duela zortzi urte eman zuen izena LOKE taldean. Astean hirutan entrenatzen du. Autista da. Taldekideekin oso ongi moldatzen da, eta ez du saio bakar bat galdu nahi izaten. "Duela gutxi arazotxo bat izan zuen hanketan. Medikua zenean, beste kezkarik ez zuen buruan; jakin nahi zuen egun horretan entrenatzera joan ahalko zuen edo ez".

"Milaka argazki" aterako dituzte jokoez iraun bitartean. Ez da gutxiagorako: mundu osotik datozen hainbeste kirolari batzen dituen kirol topaketa horietan parte hartzea ez da egunero bizitzen den esperientzia bat. Antolakuntza "oso profesionala" dela azpimarratu du Aristegik: "Hotela bilatu digute, eta kontratatu dute gurekin toki

guztietara etorriko den laguntzaile bat. Erraztasunak besterik ez dizkigute eman; bikaina da antolakuntza".

Kirol ekitaldi garrantzitsua da Special Olympics. Egitaraua eta giroa Olinpiar Jokoen antzekoa da: inaugurazio desfilea, kirol probak, domina banaketa... eta olinpiar auzoa. Baina emaitzak ez dira inportanteak. Ez da horren garrantzitsua irabaztea edo podiumera igotzea. Jokoen leloa irakurri besterik ez dago: *Millor ès qui ho intenta* (saiaitzen dena da kirolari onena).

"Ez goaz emaitza edo postu zehatz baten bila, ahalik eta gehien gozatzea eta aukera aprobetxatzea baizik. Asteburu honetan biziko duena oso ongi etorriko zaio Oscarri, pertsona eta kirolari bezala hazteko", zehaztu du Aristegik.

Kataluniako Special Olympics elkarteak lau urtean behin antolatzen ditu jokoak, 1988tik. Nazioartean da ezaguna mugimendua: Eunice Kennedy estatubatuarra sortu zuen. 2014ko jokoak Bartzelonan egin zituzten, eta 1.400 kirolarik parte hartu zuten.

## OSCAR ALEGRE DA EUSKAL HERRITIK JOAN DEN KIROLARI BAKARRA; 1.500 ARIKO DIRA GUZTIRA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONALA</b>
<b>Urola KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Argixao, Zumarragan.
<b>ERREGIONAL PREFERENTEA</b>
<b>Hernani - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Zubipe, Hernanin.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Astigarraga Mundarro</b> Larunbata. 17:15. Michelinen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Urola KE</b> Larunbata. 15:30. Michelinen.
<b>JUBENILEN 1. MAILA</b>
<b>Astigarraga Mundarro - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:15. Zarkumendegi, Astigarragan.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hernani - Ostadar SKT</b> Larunbata. 11:00. Zubipe, Hernanin.

<b>KADETEEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Hernani</b> Igandea. 10:00. Michelinen.
<b>Billabona B - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 11:30. Arratzain, Villabonan.
<b>OHOREZKO INFANTILA</b>
<b>Ostadar SKT - Euskalduna SD</b> Larunbata. 10:45. Michelinen.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>ESTATUKO 3. MAILA</b>
<b>Antiguoko KE - Kukuia</b> Igandea. 12:00. Pio Baroja, Donostian.
<b>GIPUZKOAKO 1. MAILA</b>
<b>Aldaz Hertz Klinika - Teep Samaniego Orixe</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO 2. MAILA</b>
<b>Gorka Margoak Makax - ISU Leihoak</b> Igandea. 12:00. Gaska kir., Donostian.
<b>GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA</b>
<b>Goierri KE - Bar Lasarte</b> Igandea. 10:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALAK, LAU T'ERDIKOA</b>
<b>Jaka - Arteaga II</b> Larunbata. 18:00. Labrit, Iruñean.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Zazpi Itturri - Intza KE</b> Ostirala. 20:30. Larrunarri, Amezketan. 1. mailako norgehiagoka.
<b>Gazteleku - Intza KE</b> Ostirala. 19:00. Usarrabi, Asteasun. 2. mailako norgehiagoka. Arratsaldeko laugarren partida izango da.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>JUNIOR ERRENDIMENDUA</b>
<b>Ostadar SKT - TAKE Redline Mekanika</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.
<b>JUNIOR PARTIZIPAZIOA</b>
<b>BKL Txindoki - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:55. Antzizar kiroldegia, Beasainen.

<b>KADETE ERRENDIMENDUA</b>
<b>Atletico San Sebastian - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:45. Aiete kir., Donostian.
<b>INFANTIL TXIKIAK</b>
<b>Ostadar SKT - Atletico San Sebastian</b> Larunbata. 10:30. Maialen Chourraut kir.
<b>LASTERKETA</b>
<b>XX. TXINGUDI KORRIKA</b>
<b>Herriko zenbait lasterkerik Txingudi Korrika lasterketan parte hartuko dute.</b> Larunbata. 16:30. Hendaian.
<b>3 HONDARTZETAKO KROSA</b>
<b>Hainbat herritarrek 3 Hondartzetako krosean lasterka egingo dute.</b> Igandea 14. 10:00. Donostian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hernani CRE - UBU Clinic</b> Larunbata. 17:00. Landare, Hernanin.

<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto Zarautz - Urbealdea Rugby</b> Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Universitario Bilbao - Beltzak ZRT</b> Larunbata. 16:00. El Fango, Bilbon.
<b>18 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Beltzak ZRT - Gaztedi RT</b> Igandea. 11:45. Michelinen.
<b>16 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Beltzak ZRT - Gaztedi RT</b> Igandea. 13:15. Michelinen.
<b>JUDO</b>
<b>'SPECIAL OLYMPICS' JOKOAK</b>
<b>LOKEko judoka Oscar Alegrek aniztasun mentala duten pertsonentzako 'Special Olympics' jokotan parte hartuko du. 1.500 kirolari elkartu dira.</b> Atzotik igandera. Andorra La Vellan.



Iñaki Artola kanporatuta, lau t'erdiko txapelketara sailkatu da Arteaga II.a. Final zortzirenak jokatuko ditu bihar. 21IGUALES

## Final laurdenetan sartu nahi du Arteaga II.ak

Lau t'erdiko zortzi pilotari onenen artean egoteko, Erik Jakari irabazi behar dio Arteaga II.ak. Bihar neurtuko dituzte indarrak Iruñeko Labrit pilotalekuan. "Ahalik eta operari gutxien egin, eta nire aukerak baliatu behar ditut final laurdenetara sailkatzeko"

### Iñigo Gonzalez Sarobe

"Pilotari arriskutsua da Jaka: airez oso ongi dabil. Saiatu behar naiz mota horietako pilotak kentzen, akats gutxi egiten eta erritmo altuko partida jokatzen". Argi dauka Axier Arteagak bihar nola jokatu behar duen Iruñeko Labrit pilotalekuan. 18:00etan hasiko da partida. Lau t'erdiko sailkatu da, kanporaketan Iñaki Artolari 20-22 irabazita. "Ahaztuta" dauka garaipen hori honezkero: "Biharko neurketa besterik ez daukat buruan. Pilotari onenekin egon nahi dut final laurdenetako ligaxkan; ikaragarria litzateke".

"Partidaz partida" joan nahi du herritarrek. Uste du pasa den edizioa baino "irekiagoa" izango dela hau. "Faborito handiak ez daude %100ean: lesio batetik etorriko da Altuna III.a, Urrutikoetxea gaixo egon da, Olaizola sasoiaren dago, baina urteek ez dute barkatzen, eta Bengoetxeak ez du gehiegi jokatu udan. Besteok aukera gehiago

ditugu sorpresa emateko". Joseba Ezkurdia ikusten du sasoiko: "Ez dakit txapelagatik lehiatzera iritsiko den, baina oso kontuan hartzeko pilotaria da".

### Akatsetatik ikasten

Jokatutako partidak berrikusi egiten ditu Arteagak, etxean. Gustatzen zaio kantxan pasatokia aztertzea, ongi eta gaizki egin

dituen gauzak ikustea eta horietatik ikastea. "Jakaren aurka saiatu behar dut hainbeste operari ez egiten".

Lau t'erdiko jokoak ez du zerikusirik binakakoarekin, baina udaran jokatutako partidek lagundu diote erritmo altua mantentzen. "Prestaketa lana eginda dago: kantxan erakustea dagokit orain".

## Bigarren garaipena lortu du Intzak

Gipuzkoako binakako txapelketa ari da jokatzen Intza: 1go eta 2. mailan lehiatzen dute. Pasa den larunbatean ligaxkako hirugarren jardunaldia jokatu zuten Michelinen; biek irabazi zuten.

2. mailan, Xabier Arteaga eta Aritz Solanok 22-21 irabazi zuten EPLEren aurka. 1go mailan, Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolaren aurkariak ez ziren azaldu, eta entrenatzeko aprobeztatu zuten.



Xabier Arteaga, sakatzen. TXINTXARRI

## Errugbia Michelinera itzuli da: Beltzak ZRT 10- Iruña RC 29

Euskal Ligari ekin dio Beltzak ZRT taldeak; hainbat herritarrek jokatu dute estreinako partida Michelinen

### Txintxarri

Uda luzea eta gero, errugbi giroa bueltatu da Michelinera. Euskal Ligan ari diren Beltzak ZRTk eta Iruña RCk ireki zuten denboraldia larunbatean. Nafarrek irabazi zuten, 10-29. Hainbat lasarteoriatar aritu ziren etxeko taldean. Dena eman zuten, baina ezin izan zuten aurreneko garaipena poltsikoratu.

Ohorezko B mailako Babyauto Zarautzek martxa ederra hartu du: bigarren garaipena lortu du jarraian. Valladoliden jokatu zuen asteburuan, El Salvadorren aurka. 17-24 irabazi zuen.



Bi taldeak, 'Touch' bat jokatzen. TXINTXARRI

### Garaipen garrantzitsua

Ohorezko mailan lehiatzen duen Hernani CREk denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen Valentziako La Vilaren aurka: 29-38. Garaipen horri esker, sailkapeneko azken postuak

atzean utzi ditu, eta, sei punturrekin, zortzigarren postuan da orain.

Hernani/Txingudi/Atletico SS taldeak ere ekin dio ligari, eta ezin izan zuten Getxo Artearen aurka: 0-62 galdu zuen Landaren.

## ESKOLA KIROLEKO arduradun baten bila gabiltza



### Betebeharrak:

- Eskola kirola antolatzea eta begiraleak kudeatzea.
- Udalarekin, kirol elkarteekin, ikastetxeekin eta guraso elkartearekin elkarlanerako harreman zuzena izatea.

### Baldintzak:

- Euskaraz jakitea.
- Kirolarekin edota aisialdiarekin lotutako esperientzia izatea.
- Orduetegi malgua izatea.

### baloratuko da:

- Kirolarekin lotutako tituluren bat izatea edota begirale titulua izatea eta hurrekin izandako esperientzia.

### Eskaintzen den lanaldia 30 ordukoa izango da

Curriculumak urriaren 10a bitarte jasoko dira:  
[ttakun@ttakun.eus](mailto:ttakun@ttakun.eus)  
 Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

# Aldaketa batzuk, eta liga eskuratzeko helburua

Aldaz Hertz Klinikak berdindu egin du Gipuzkoako ligako lehen partidan, Oiartzunen aurka, Lehen Mailan. Babesle berria du taldeak. Gaur izango du etxekoan aurrean lehen norgehiagoka. Garoa tabernak sailkapenaren goiko zatian egoteko xedea du

## Txintxarri

Aldaketa batzuekin hasi du denboraldia Eguzki Areto Futbolak. Babesleen aldaketa batetik; Aldaz Hertz Klinikak itzuli da kirolera, eta Garoa tabernak ere bidea egin nahi du. Bestetik, ordezkari bat gutxiago izango du aurten maila gorenean. Izan ere, Espainiako ligako Hirugarren Mailako mutilen taldea desagertu da. Edonola ere, Gipuzkoako ligan ez du gaizki hasi liga Aldazek: berdinketa eskuratu du etxez kanpo, Oiartzunen aurka. Asteburu honetan du estreinaldia etxeko zaleen aurrean.

"Ez da emaitza txarra. Denboraldiko lehen partida da, eta Oiartzun arerio zuzena da txapelketa eskuratzeko lehian". Gorka Redondok, Eguzkiko arduradunetako batek, baikortasunez hartu du emaitza. Izan ere, Aldaz Hertz Klinikak taldearen helburua txapelketa eskuratzeko da. Hiruna berdindu zuten.

Gaur, ostiralez, jokatuko du etxekoan aurrean lehen partida, Maialen Chourraut kiroldegian. Teep Samaniego Orixe Tolosaldea izango du aurkari. Hiru puntuen bila aterako dira Mikel Escribano eta Javi Vecillaren mutilak.



Aldatz HK lehen taldeko babesle izango da; ISU Leihoak bigarren taldekoa. TXINTXARRI

Ez dira hauek asteburu honetan jokatuko diren partida bakarrak izango. Bigarren mailako ISU Leihoak mutilen taldeak Donostian emango dio hasiera denboraldiari, Gorka Margoak Makax taldearen aurka. "Taldeen jende berri asko dago, jubenil taldeak igotakoak gehienak, eta maila berrian nola moldatzen diren ikusi beharko da", esan du Redondok. Aurten Cecilia Frutadenak ez du talderik babestuko.

Jubenil mailako taldeak, berriz, Bar Lasartek, lehia hasia du. Etxean jokatu zuen Antigua Luberriren aurka, 1-5 galduta. Igandean, Goierri izango du aurrez aurre etxean, baina kanpoko bezala jokatuko du.

Elastikoetan beste aldaketak ere izan ditu Eguzkik. Izan ere, Trumoi ez du senior emakumeen taldearekin jarraituko, eta Garoa tabernak hartu dio lekukoa. Hain zuzen, Trintxerperen aurka lagunartekoa jokatuko dute asteburu honetan. Balerdi Harategia kadeteek, aldiz, Zarautzen aurka arituko dira, partida ez ofizialean horiek ere.

Garoa taberna taldearen denboraldia itxaropentsua da. "20 bat jokalaria daude, eta indartsu hasi dira lanean. Lehen lagunartekoan 0-9 irabazi zuten. Ikusi beharko da garapena. Lehen postuetan lehian egongo dira, baina lan zaila izango dute, Ordiziako taldea bigarren nazional mailatik jaitsi da eta".



Ttakun Kultur Elkartearekin eginiko urpoloko topaketa. TXINTXARRI

## Urpoloan aritzeko aukera izango da lehen aldiz Lasarte-Orian

2008. urtea baino lehen jaiotakoek dute parte hartzeko aukera. Urrian hasiko dira entramenduak diziplina berrian

## Txintxarri

Kirol eskaintza aberatsa du Lasarte-Oriak, hamaika diziplina praktikatu baitaitezke herrian bertan. Dena den, denboraldi honetan are gehiago haziko da, oraindik oso ezaguna ez den kirol batekin: urpolo. Izan ere, Buruntzaldea IKTk adin guztientzako eskaintza zabaldu du aurten. Urpolo eskolarekin, 2008an eta aurrerago jaiotakoek izango dute kirol hori taldean egiteko aukera.

Aurretik egin ditu urpoloko jardunaldiak Buruntzaldea IKTk, Ttakun Kultur Elkartearekin elkarlanean. 2016an egin zituzten lehenak, eta 24 umek parte hartu zuten. Gerora beste bi topaketa egin dituzte, aurten.

Bistan denez, igeriketa da urpoloaren oinarria. Horregatik, gutxienez 10 urte behar ditu haurrak kirol horretan hasteko, aurretik igeri egiten jakin behar duelako.

Edonola ere, eta nahiz eta igeriketaren barruan sartzen den kirola izan, ez du zerikusirik harekin, Borja Apeztegiak Buruntzaldea IKTk o entrenatzaileak azaldu duenez. "Futbolean ere korrika egiten da, baina ez da atletismoa. Taldekako kirola da, eta osagai taktiko handia du. Izaera propioa duen kirola da". Apeztegiaren arabera, urpolo erakargarria izan daiteke, igeriketa gustatu arren, igerilekuan sartzera oraindik animatu ez direnentzat.

Gipuzkoan ere garatzeko bidean dagoen kirola da, baina badaude taldeak hainbat herritan, Hernanin, Eibarren, Donostian eta Irunen, kasurako.

Interesa duen orok [www.buruntzaldeaikt.eus](http://www.buruntzaldeaikt.eus) jaso dezake informazio gehiago, ordutegiak eta beste. [info@buruntzaldeaikt.eus](mailto:info@buruntzaldeaikt.eus) helbidean jarri daiteke harremanetan taldearekin.

## Triatloiak badu harrobia

Triatloiak badu harrobia Lasarte-Orian. Aimar eta Jurgi Sukunza anaiak Comillaseko triatloian aritu dira joan den asteburuan, Kantabrian, Espainian. Eta pozik itzuli dira etxera, eta ez soilik emaitzagatik. Aimarrek bigarren egin du kadete mailan. Jurgik, berriz, zortzigarren alebinetan. Biak aritzen dira Buruntzaldea IKTn.



K. GOMEZ

## Urriaren 20ra arte aurkeztu daiteke kirolari nabarmendua

Urtea amaitzear dagoenaren seinale, udalak martxan jarri du 2018ko kirolari nabarmena aurkeztzeko prozesua. Urriaren 20ra arte egongo da aukera hautagaiak aurkezteko. [kirolak@lasarte-oria.eus](mailto:kirolak@lasarte-oria.eus) helbidean, edo kiroldegian dagoen kaxan utzi daitezke kirolariaren izendapenak.

Herritarrek edo kirol elkarrekin aurkeztu ditzakete hautagaiak, hiru guztira. Batetik, emakumezko kirolari nabarmenaren saria egongo da. Bestetik, gizonezkoarena, eta, azkenik, kirolean arrastoa utzi duen ibilbide bati aitortza egingo diete.

Bestalde, udalak martxan jarri du mutilen areto futboleko txapelketa. Urriaren 19ra arte izena eman ahalko da, Sportmadness antolatzailearen webgunean.

## ZORION AGURRAK




**Eneko**  
Urteek ez zaitzatela zaharrago bihurtu, jakintsuago baizik.



**Antonio**  
Zorion asko zure semea eta emaztearen partetik. Gonbidatuko zaitugu bazkari batera.



**Irai**  
Zorionak txapeldun!!! Urriaren 8an 6 urte beteko dituzu eta. Muxu handi bat Jon, ama eta aitaren partetik. Ondo pasa!!!



**Ane**  
Zorionak Ane!! Egun polita pasa zure 9. urtebetetzean!!! Familia guztiaren partetik!!

## Urte askotarako!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu horretarako

## Internet

Txintxarri.eus-en txintxarri.eus/zorionagurrak eta bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Asteazkeneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## HILDAKOAK

**Jose Bernardo Arregui Ugalde.** Irailaren 28an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 5	GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 6	DE MIGUEL
Igandea, 7	DE MIGUEL
Astelehena, 8	ORUE
Astearte, 9	DE MIGUEL
Asteazkena, 10	LASA
Osteguna, 11	GIL
Ostirala, 12	ACHA-ORBEA
Larunbata, 13	ACHA-ORBEA
Igandea, 14	ACHA-ORBEA
Astelehena, 15	URBISTONDO
Astearte, 16	GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 17	ORUE
Osteguna, 18	GIL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

## GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## SUDOKUA

9	1		3	4	5			
		4	7	1	2			5
						1		4
	6	3					1	9
1			4				5	
		5		3	1	8		
		1					6	2
	4		2		9	3	7	1
7	2		1		3			

## OHARRAK

## Xumela koruko entseguak

Xumela koruak hasi du ikasturte berria. Euskaraz eta ongi pasatuz kantatu nahi duen guztiak atearak zabalik ditu astelehenero 19:30etatik 20:30etara.

## Tabernei deialdia Euskal Jaietan

Azaroaren 10ean izango dira Euskal Jaiek. Herriko taberna guztiak gonbidatzen ditu Euskal Jaiei Lantaldeak festa eguneko egitarauan parte hartzera. Alde batetik, pintxo-potea eginez. Bestetik, gaua girotzeko ekitaldi bereziak antolatuz, betiere Euskal Jaiei ezaugarriak kontuan hartuta.

## Udaleku eta Txokoetako arropa galdua

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako txoko eta udalekuetan egon diren haurren gurasoak galdutako arroparen bila hurbildu daitezke elkarteko bulegora. Arropa urriaren 1etik 11ra arte jaso ahal izango da bulego ordutegian.

## Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak 2018/2019 ikasturteari hasiera eman dio, berrikuntza batekin: entsegu lekua. Ikasturte honetatik aurrera, Villa Mirentxun bilduko dira, astelehen eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:30etara umore

onean abesteko. Alboka Abesbatzak 15-55 urte bitarteko lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu entseguetara gerturatzen eta probatzen. Ez da beharrezkoa musika hizkuntza jakitea. Informazio gehiago [junta@albokaabesbatza.com](mailto:junta@albokaabesbatza.com) helbidean eskuratu daitezke.

## Yoko-Garbi elkartearen bazkide kanpaina

Zubietako Yoko-Garbi elkartearen bazkide izateko azken tokiak geratzen dira. Izena ematea Alamangi jatetxean edo [yokogarbielkatea1@gmail.com](mailto:yokogarbielkatea1@gmail.com) helbidean egin behar da, urriaren 14-a baino lehen.

## Katekesi saioak hastear

San Pedro eta Arantzazuko Ama parrokietako katekesi saioak hurrengo asteetan hasiko dira. San Pedro parrokian urriaren 6an, larunbatean 11:30an (LH1), 12:00etan (LH2) eta 12:30ean (LH3) izango dira. Arantzazuko Ama parrokian, berriz, LH1 urriaren 9an, 18:00etan; LH2 urriaren 10ean, 18:00etan eta LH3 urriaren 11an, 18:00etan izango dira lehen saioak.

## Erketzen urteurren bazkaria

Erketz EDTren 50. urteurreneko txartelak erosteko azken eguna da gaur, urriak 5. Patricio tabernan, Mendi-Rock tabernan eta Ormazabal lora-dendan daude eskuragarri.

## Hurrengo TXINTXARRI aldizkaria urriaren 19an kaleratuko dugu

Bidali jakinarazpenak, oharrak, zorion agurrak, gutunak...  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)-era edota whatsapp bidez: 688 68 35 10

**ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioa

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

**Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan**

**Eskelak**  
**Txintxarrin**  
**90 euro**

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

#### ALOKAIRUAN EMAN

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811

### LANA

#### ESKARIA

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. Harremanetarako, 671 908 616.

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa bezala, orduka, gauean ospitaleetan, asteburuetan...  
Telefonoa: 943 40 40 15/ 606 66 10 48.

### HEZKUNTZA

Klase partikularrak eman edota haurrak zainduko nituzke. 609 259 102

### BESTELAKOAK

8 urteko ume batek gitarra eta bateria bat hartuko lituzke. 943 362 614.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.

## TELEFONOAK


### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

### Administraria

Nerea Garziarena.

### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

### Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Mailu Arruti, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

### Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Naiara Goikoetxea.

### Informatikoa

Beñat Gonzalez

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

### Legu Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 5

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Hainbat ekintza egingo dira Adinekoen Omenezko Astearen barruan:

11:00etan, *Ondo ibili*, Okendo plazatik hasita.

17:00etan, lerroko dantzak, Okendo plaza.

19:00etan Duo Imperial mariatxiak, Manuel Lekuona. Gonbidapena behar da. Lasarte-Oria, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Udazken festa

Zabaleta Auzoko kideek udazken festaz gozatuko dute:

19:00etan, Sonia Rodriguezek Islandiari buruzko diaporama eskainiko du.

20:30ean, sardin-jana.

Zabaleta auzoko lokalean, 19:00etatik aurrera.

## LARUNBATA 6

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Adinekoen Omenezko Astearen bi ekintza egingo dira:

09:30ean, ibilaldi neurtua, Okendo plaza.

18:00etan, dantza lehiaketa, Biyak Bat elkarte. Lehiaketaren izena ematea, 17:00etan hasiko da.

Lasarte-Oria, 09:30ean eta 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Aurkezpena

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok *Musua* disko liburu berria aurkeztuko dute. Ezustekoak izango dira.

Jalgi kafe-antzokia, 11:00etan.

### LASARTE-ORIA Borobilean

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazok *Borobilean* ikuskizuneko azken emanaldia eskainiko dute. Sarrera, 3, 80 euro.

Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA II. Survival Zombie

Lasarte-Oriako herritarrek berriro ere Gauekoren birusari eta zombiei aurre egin beharko diete II. Survival zombie jokoan. Sarrerak, *zombies.es* orrialdean.

Lasarte-Oria, 23:00etatik 05:00etara.

## IGANDEA 7

### LASARTE-ORIA Adinekoen Omenezko Astea

Adinekoen omenezko astea egun handia izango da:



**LASARTE-ORIA Borobilean.** Ikuskizun honetan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo bihurriek arauen, antolaketa eta norbere lekua bilatzearen inguruko gogoeta egiten dute. Minak eta desirak nola kontatu, errespetua landu eta erabakiak nola hartu ere lantzen dute. Horretarako, borobilean eseriko dira. Pailazoen 30. urteurrenarekin bat aurkeztu zen lana. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 17:00etan.

11:00etan, meza Biyak Bat elkarteko abesbatzak lagundua, San Pedro eliza.

12:30ean, Biyak Bat elkarteko abesbatzaren eta Amaia Gonzalez Caballero eskolako kideen emanaldia, Manuel Lekuona.

14:00etan, bazkaria, Michelin kirolgunea.

16:00etan, Azabache taldearekin dantzaldia, Michelin kirolgunean.

Lasarte-Oria, egun osoa.

## ASTELEHENA 8

### LASARTE-ORIA Adinekoen omenezko astea

Urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteen eguna antolatu dute:

10:40ean, trikitixekin kalejira, elkartetik Ama Brigitarren komentura.

11:00etan, meza, elkarteko abesbatzak lagunduta, Brigitarren komentura.

13:00etan, oroigarrien banaketa, Biyak Bat elkarte.

14:30etik aurrera, bazkaria eta dantzaldia, Abend.

Lasarte-Oria, egun osoa.

## ASTEAZKENA 10

### LASARTE-ORIA Opera

Teatro Realen grabatutako *La Traviata* opera. Jatorrizko hizkuntzan, gaztelarazko azpidatizkiekin. Sarrerak, aurrez 7,5 euro; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona, 19:00etan.

## OSTIRALA 12

### LASARTE-ORIA Aste kulturala

Semblante Andaluz elkarteko kideek Aste

kulturala ospatuko dute. Andaluziako musika, dantza eta gastronomiaz gozatu ahalgo da.

Okendo plaza, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Sasoetako jaiak

Sasoetako auzoko herritarrek jaiak hasiera emango diete.

Jaizkibel plaza, egun osoa.

## LARUNBATA 13

### LASARTE-ORIA Aste kulturala

Semblante Andaluz elkarteko kideek Aste kulturalako bigarren eguna dute.

Okendo plaza, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Sasoetako jaiak

Sasoetako auzoko herritarrek ekintzaz betetako egitaraua osatu dute.

Jaizkibel plaza, egun osoa.

## IGANDEA 14

### LASARTE-ORIA Aste kulturala

Semblante Andaluz elkarteko kideek amaiera emango diote Aste kulturalari.

Okendo plaza, egun osoa.

### LASARTE-ORIA Sasoetako jaiak

Auzoko jaien azken eguna izango dute Sasoetako auzotarrek.

Jaizkibel plaza, egun osoa.

### LASARTE-ORIA D'Capricho

Xumela koruak antolatuta, D'Capricho taldearen emanaldiaz gozatu ahalgo da. Sarrera, 5 euro.

Abend kafe-antzokia, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Lucky (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.

**Hotel Transilvania 3**  
Igandea: 17:00.

**Alpha**  
Igandea: 19:30.

#### USURBIL

#### URBIL

#### Venom

Ostirala:  
15:45, 17:00,  
18:00, 19:30,  
20:40, 22:00,  
22:30, 23:10,  
00:30, 00:55(3D).

Larunbata:  
15:45, 17:00,  
18:00, 19:30,  
20:20, 20:40,

22:00, 23:10,  
00:30, 00:55(3D).  
Igandea: 15:45,  
17:00, 18:00,  
19:30, 20:20,  
21:00, 22:00.

**Ola de crímenes**  
Ostirala: 16:05,  
18:20, 20:40,  
22:50, 01:00.  
Larunbata: 16:05,  
18:20, 20:40,  
22:50, 01:00.

**Ha nacido una estrella**

Ostirala:  
16:10, 19:00,  
21:50, 00:40.  
Larunbata:  
16:10, 19:00,  
21:50, 00:40.  
Igandea: 16:10,  
19:00, 21:50.

### Christopher Robin

Ostirala:  
16:00, 18:15,  
20:30, 22:45.  
Larunbata:  
16:00, 18:15,  
20:30, 22:45.  
Igandea:  
16:00, 18:15,  
20:30, 22:45.

### El reino

Ostirala:  
22:10, 00:20.  
Larunbata:  
22:10, 00:20.

**Milla 22**  
Ostirala:  
15:45, 20:25.

Larunbata:  
15:45, 22:45.  
Igandea:  
15:45, 22:45.

**Searching**  
Ostirala: 15:45,  
18:10, 01:00.

Larunbata: 15:45,  
18:10, 01:00.  
Igandea:  
15:45, 18:10.

**Predator**  
Ostirala: 00:55.

Larunbata: 00:55.  
**Johnny English: De nuevo en acción**

Ostirala:  
16:00, 18:05,  
20:10, 22:15.

Larunbata:  
16:00, 18:05,  
20:10, 22:15.

**La monja**  
Ostirala:  
17:50, 20:00.

Larunbata:  
17:50, 20:00.  
Igandea:  
17:50, 20:00.



### LABURPENA

### Lucky (JBGA)

**Zuzendaria:** John Carroll Lynch. **Gidoilaria:** Logan Sparks, Drago Sumonja. **Herr:** AEB (2017). **Aktoreak:** Harry Dean Stanton, Ed Begley Jr., Beth Grant, James Darren, Barry Shabaka Henley, Yvonne Huff, David Lynch, Hugo Armstrong, Bertila Damas. **Iraupena:** 88 minutu.

## Bizitzaren zentzuaren bila

Lucky 90 urteko gizon ateo bat da. Basamortuaren erdian bizi da. Lagun guztiak baino gehiago iraun du, eta bizitzaren azken atalean dago. Ezusteko gertaera baten ostean, bidaia bat abiatuko du, bere burua aurkitzeko eta bizitzaren zentzua ulertzeko. Bizitzaren alde atsegina ezagutuko du, eta beste iritziak onartzen ikasi beharko du. Era berean, bere ideiak defendatu beharko ditu.

Harry Dean Stanton aktorearen azken filma da. Paris, Texas edo The Straight Story filmeetan egindako lanak ezaguna egin zuten. *The Godfather II*, *Alien*, *Pat Garret and Billy the Kid*, *Cool Hand Luke...* filmeetan ere parte hartu zuen,

bestelako rola eginez. 2017ko irailean hil zen eta ezin izan zuen filma bukatua ikusi.

Bestalde, John Carroll Lynch aktorearen lehen filma da kameraren atzean. *Fargo* filmean egin zen ezaguna. Telesail eta film ugarietan ere lan egin du, hala nola, *American Horror Story*.

*Lucky* filma hainbat zinema jaialditan ikusi da. Sari askotarako hautagaitzak izan ditu, eta hainbat eskuratu ditu. Gijongo Zinemaldian AISGE aktore onenaren saria lortu zuen Harry Dean Stantonek, esate baterako.

Filma jatorrizko hizkuntzan eskainiko da, gaztelarazko azpidatizkiekin.



# txalaparta ikastaroa

Azarotik abendura

**Eguna:** astelehena 17:30etik 19:00etara; asteartea 17:30etik 19:00etara; edo asteazkena 15:30etik 17:00etara.  
**Izen-ematea:** Urriaren 26ra arte. **Plaza mugatuak.**  
**Prezioa:** Ttakuneko bazkideak 55€, besteak 58€.  
**Izen-ematea:** Ttakunen bulegoan • [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)  
 943 37 14 48 • 695 785 389



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

gama altuko 2 mó progresibo erreflexuen aurkako lenteekin

## 229€

[www.multiopicasgipuzkoa.com](http://www.multiopicasgipuzkoa.com)

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia  
 Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsumatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
 Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
 Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
 lehena zerbitzu optikoetan

Bezeroaren Hamabostaldia

# 1300€

## saritan

Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian urriaren 8tik 19ra, eta parte har ezazu erosketa-bonoen zozketan

Zuzeneko zozketa urriaren 19an 20:30ean, Okendo plazan

**LASARTE-ORIAN BIZI, LASARTE-ORIAN EROSI**

